

Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin apirilean kontsumitutako elektrizitatea mantendu zen (%-0,3) aurreko urtekoarekin alderatuz gero. Eraikinen eta industria sektoreetan energia kontsumoa %5,5 eta %1 jaitsi zen, hurrenez hurren.

Elektrizitate kontsumoak nabarmen egin du behera etxebizitza sektorean, %10 eta zerbitzuen sektorearen kasuan ia %2.

Siderurgia sektorearen kontsumoak %1,3 egin du behera, eta hau kontuan hartu barik industriaren kontsumoa mantendu egin da (-0,68%). Azken honek, papera eta kartoiaren azpisektorearen igoera (%10,3) eta plastikoen eta kautxoaren jaitsiera (-%31,4) barneratzen ditu, besteak beste.

Gas naturala







Apirileko gas naturalaren guztizko kontsumoak %7,5 egin zuen gora, aurreko urtekoarekin alderatzen bada, izan ere zentral termikoen kontsumoa, aurreko urteko apirilekoaren bikoitza (%128) izan baitzen. Gainerako sektoreak aldiz mantendu egin ziren (%-0,5).

Erregaiak garraioan

2019ko martxoan, EAEn, garraioen erregaien kontsumoa %2,7 txikiagoa izan zen 2018ko martxoarekin alderatuta.

Epe berean, gasolinen kontsumoak %5 egin zuen gora eta A gasolioak %3,4 egin zuen behera.

Iturriak: EEEren lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



Nazioarteko egoera

Petroliaren kontsumoa munduan

2019ko apirilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 100 milioi kupel izan zen (2018ko apirilean izandakoaren aldean, %1,3 igo zen).

Epe berean, Txinak %3,4 hazi zuen bere kontsumoa 14Mbpd arte, AEBek %0,5 igo zuten 20Mbpd arte eta Europar Batasunak %0,2 jaitsi zuen 14,9 Mbpd arte.







Munduan, azken 12 hilabetearen hileroko batez bestekoa 100 Mbpd ingurukoa izan zen.

Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, 2019ko otsailean, 178 bcm (milaka milioi m³) inguru kontsumitu ziren. Kontsumo hau aurreko urteko otsailekoaren antzekoa izan zen. Azken 12 hilabetearen hilaren batez bestekoa 146 bcm-koa izan zen.

OCDEko alde geografikoen arabera, kontsumoen aldaketak gorabeheratsuak izan ziren, aurreko urtekoekin erkatuta; izan ere, Amerikan eta Europa %1,9 eta %1,5 igo ziren, hurrenez hurren, eta Asia-Ozeanian, berriz, %2,8 jaitsi zen.

Iturriak: AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



Energiaren kontsumoa Espainian

Energia elektrikoa

Espainian, elektrizitatearen kontsumoak %2,4 egin zuen behera apirilean, 2018ko hilabete horretan izandakoarekin konparatuta. 2019. urteko apirilera arte metatutako kontsumoa %2,6 baxuagoa izan da aurreko urtearekin alderatuz.

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2019ko apirilean berriztagarrien partaidetza %42 izan zen, eolikoarena %25 izanik. Gainerako sorkuntza, erregai fosilen (%33) eta nuklearraren (%25) bitartez asetu zen.

Gas naturala






2019ko apirilean, Espainian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %14 egin zuen gora, 2018koarekin konparatuta. Igoera hau, zentral termikoetan izandako igoera esanguratsuagatik (+%93) izan zen eta baita gainerako kontsumoen gorakadagatik ere, %3,7 alegia.

Erregaiak garraioan

Espainian, errepideko garraioaren erregaien kontsumoak goranzko joera du 2014. urteaz geroztik.

Erregai motaren arabera, erregai nagusiek joera ezberdinak erakusten dituzte. 2019ko martxoa aurreko urteko martxoarekin alderatzen bada, gasolinaren kontsumoaren %2,7ko igoera nabarmentzen den bitartean, A gasolioa %3,3 murriztu egin da.

Iturriak: REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.



Energiaren prezioak

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 71,2\$ (63,4 €) izan zen martxoan, urte hasierako igoera joerari helduz. 2018an 56,5\$ arte murriztu ostean, prezioak %26 egin du gora 2019an.

Elektrizitatearen prezioa

Espanian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 50 €/MWh izan zen apirilean, aurreko urtearekin alderatuz, %18 altuagoa.

Gas naturalaren prezioa

Holandako TTF delakoa, erreferentziakoa batez besteko prezioa europar merkatuan, 15,2 €/MWh izan zen apirilean; Espainian, MIBGASena 17 €/MWh-koa izan zen; eta Alemaniako EGIX M+1aren apirileko prezioa 16,4€/MWh izan zen.

Nazioarteko merkatuetan, apirilean, Henry Hub deritzona, 9 €/MWh-ra iritsi zen, eta prezioa Japonian 18 €/MWh izan zen.







Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren eta gasolinaren prezioek gora egin dute urte hasieratik. 2018ko abenduan gasolioaren prezioa 1,14€/l izan zen eta gasolinarena 1,19€/l; 2019ko apirilean, berriz, gasolioarena 1,28€/l izan da eta gasolinarena 1,36€/l.

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren europar baimenaren prezioa 25,6€/t izan da apirilean, 2018ko abenduko balio altua mantenduz.

Iturriak: EIA, OMIE, Powernext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espainia

Espanian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs urte hezea).

2019 urte hasieran berriztagarrien parte hartzea handiagoa izan da, (%37,8koa izan da otsailean), energia eolikoak gora egin baitu (%18 otsailean). Erregai fosilen sorkuntza %40tik behera mantentzen da eta energia nuklearrak %23ko parte hartzea izan zuen otsailean.

Frantzia

2019ko sorkuntza elektrikoak Frantzian, aurreko urtearen egitura antzekoa jarraitzen du; funtsean, energia nuklearrean oinarritzen da (%71). Berriztagarrien ekarpenak %19ra iristen dira eta gainontzeko %10a erregai fosilei dagokio.

Alemania

Alemanian, aurreko urteko sorkuntza joerari jarraituz, berriztagarrien ekarpena handituz doa (%38), erregai fosilen bidezko sorkuntzaren kalterako (%50); nuklearren partaidetzak bere horretan jarraitzen du (%12).

Erregai fosiletan, azpimarratzekoa da ikatzaren (%33) eta, maila apalagoan bada ere, gasa naturalaren (%15) partaidetza sorkuntza elektrikoan.

Iturriak: AIE-ren datuetan oinarrituta.